



OIARTZUNGO
UDALA

Oiartzungo Gazteria eta Kirola Saila

UDALEKU IREKIAK 2007

HAURREK IZENA EMATEKO DEIALDIA

Aurreko urteetan bezala, aurtengo udarako Udal Gazteria eta Kirola Sailak udaleku irekiak antolatu ditu Uztailan zehar Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako haur eta gaztetxoentzat (1995 eta 2003 urteak bitartean –biak barne- jaiotako haurrak).

Udaleku Irekiak euskaraz izango dira eta Oiartzungo haur guztiei zuzenduta daude, ikasturtean zehar landu duten euskararen ezagutzari jarraipena eta erabilera emateko helburuarekin (B eta D ereduko ikasleentzat).

Honen bitartez Udalekuetan parte hartu nahi duten haur eta gazteen gurasoei jakinarazten zaie **haurren izena emateko epea apirilaren 23tik maiatzaren 4ra bitartekoa** izango dela eta Haurtzaro Ikastolara, Elizalde Herri Eskolara edota Udaletxeko Informazio Bulegora jo beharko dutela.

Lehenik, 67 € ko kuotaren ordainketa apirilaren 23tik maiatzaren 4ra bitartean egin behar duzue LABORALAREN edozein bulegotan udaletxeko kontu honetan sartuz dirua eta haurraren izen-abizenak adieraziz:

3035 0126 62 126 0900040 LABORALA

Ordainketa LABORALean egin ondoren **maiatzaren 4a** baino lehen izen emate orria bete behar duzue **Haurtzaro Ikastolan, Elizalde Herri Eskolan edo udaletxean. Ez ahaztu izen ematerakoan, LABORALEKOKo ordainagiriaren kopia eramatea.**

Epez kanpoko izen ematerik ez da onartuko, inolako kasutan.

Udalekuetan izena ematerakoan adierazi beharko da haurrek inolako alergia-rik ote duten, botikarik hartzen ari ote diren edota laguntza berezirik behar duten. Baita, zein autobus geltokia erabiliko duten bai joaterakoan bai bueltatzerakoan.

Udalekuak uztailaren 2tik 31a arte iraungo dute, goizero 9,30etatik 13,30ak arte. Informazio gehiago, Udaletxeko Informazio Bulegoan eta www.gazteoiartzun.net webgunean.

Oiartzun, 2007eko apirilaren 17a.

GAZTERIA TEKNIKARIA